


Mioma-Gaubea Hiriberri

Gaubeako nekropoli eta gazteluak



Kokapena


Garbea udaleko lurrak zeharkatzen ditu ibilbide honek, Burgosko Valpuesta herriaren mugatik oso gertu. Peña Rubia (1.054 m.) eta La Horca (960 m.) mendien arteko lepotik Astulez eta Hiriberri lotzen diitu.

Toki interesgarriak

Astulezko gaztelua: X. mendeko eraikuntza honen helburua Gobiarango inguru hauek mairu oldeen aurrean babestu eta defendatzea izan zen eta baita Tumecillo eta Omecillo ibaietatik zihoan itsarorantzko bidea ere zaintzea ere. Hasiera batean Burdin Aroko herrixka egon zen. Gaztelua Ondare Historikoari buruzko 1985eko Legeak babestuta dago.

Astulezko San Millan: Oso erromaniko zaharreko eliza da.

Valparaíso San Martin: Gaubea Hiriberritik 2 kilometrotara, San Martingo arroilan, Erdi Aroko monastegi baten aiurriak daude. 919ko agirietan aipatzen dute eta, XII. mendera arte iraun omen zuen. Haití hormetan, mendebaldean, monastegiaren habiei eusteko egin zituzten zuloak ikus daitezke oraindik. Metro batzuk iparralderago harrietan zulatutako giza itxurako hilobiak daude, bisigodoen tipologiakoak. Harkaiztiaren goiko partean, ekialdean, San Pedro gaina dugu (865 m.), non Burdin Aroko herrixka egon zen, gaur egun ezer ere ez ikusi arren. Han ere basiliza egon zen. Eusko Jaurlaritzak 2006an Ondare Kulturala izendatzeko espedientea ireki zuen, ebazpena oraindik jakin ez dakigula.





IBILBIDEA

0 Km. / 0h. 0' **Mioma** herria dugu ibilbide honetako abiapuntua. Herriko iturriaren atzekaldetik hartuz, ekialderantz ateratzen den bidetik jarraituko dugu, soro landu batzuen artean. Igotzen jarraituko dugu, orain pinuen artean, zeintzuk helduak izan arren ez diren oso handiak abereen kimatzeagatik. 2 kilometro aurrerago, bidebanatze batera helduko gara. Ezkerreko bidea aukeratu eta gero, **Astulezeko Gaztelura** helduko gara. Itxuraz helezina den harrizko erpin batean x. mendetik kokatua. Gaztelua bisitatu eta gero joaneko bidetik itzuliko gara pistaraino. Lehenengo norabidea jarraituz, berehala **Astulez** herrira helduko gara.

2'5 Km. / 0h. 45' Herri honetatik, bideak gora egiten du. Aldapa gogor pare bat baino ez dugu aurkituko, hori bai, astiro hartu beharko dugu igoera, nahiko luzea delako. Hormigoizko pista bat enparantzako iturriaren atzekaldetik hartu eta aldapari ekingo diogu. Hesi bat gainditu eta gero, zuzen jarraituko dugu, eskumatik ateratzen den aukera saihestuz. Lehenengo parte honetan, pinudi soileko tartekak, arte oso eder, eta baita ere, eite handiko erkametz tartekin txandakatuko dira. Pixkanaka – pixkanaka mendizerrarentz hurbilduko gara eskumatara biraka. Zumelditik aterako gara pista zabal batera, zeinek eskuinetik landa txiki batekin bat egiten duen.

4 Km. / 1h. 05' Landa honetatik, bi basobide doaz aurrera, bien artean metro gutxi daudelarik. Lehenengoa argi eta garbi ikus daiteke baina bigarrena ez ikustea gerta daiteke, hasiera landaretzak izkutatzen duelako. Hirugarren pista bat ezkerretik igoko da zumelen artean. Bide honetatik ekingo diogu maldari. *300 metro* egin eta gero, pagadian sartzen den pista jarraitu beharko dugu eskuinetik. Beste bidegurutze batekin ekingo dugu topo, hemen ezkerretara jo beharko dugu bortizki. Berehala helduko gara mendilepo batera, ibilbide honetako puntu gorena.

6,5 Km. / 1h. 45' Behin beste mazelan egonda, berriro zumeldia protagonista izango da. Jaisten hasiko gara, eta berehala eskuinetik bidexka bat hartuko dugu. 400 metro aurrerago Burgos eta Araba artean dagoen mugarekin (alanbrada bat) ekingo dugu topo. Alanbradaren ondotik jaisten hasiko gara, eta bihurgune pare bat egin eta gero, nabariagoa den pistatik hegoalderantz abiatuko gara. Norabidez aldatu gabe, ura biltzeko etxetxo baten albotik igaroko gara.

8,4 Km. / 2h. 20' **San Martin de Valparaisoko** zelai izugarrietara helduko gara, non x. mendeko monastegi bateko aztarnak eta harkaitzetan landutako hainbat hilobi antropomorfo aurkitzeaz aparte, eskalatzaille ugari ikus ditzakegun, kirola hori egiteko leku aparta delako. San Martin de Valparaiso sakana mugatzen duen metalezko atea gainditu eta gero, oso leunki jaisten jarraitu beharko dugu, gaurko irteeraren amaierara heltzeko, hau da

11 Km. / 3h. 10' **Uribarri Gaubea herria.**